

BOTILOI MASIBOAK SAIHESTEKO ETA DURANGARREN SEGURTASUNA ETA BIZIKIDETZA EGOKIA BERMATZEKO NEURRIAK EZARTZEKO MOZIOA

Udaberrian Zuhatzola parkean gertatzen zen bezala, azken asteburuetan Pinondo, Mañaria ibaia eta Santa Ana plaza zaborrez, pixez eta kristal hautsiz beteta esnatu izan da, botiloi masiboen ondorioz. Horrez gain, aste honetan bertan Fray Juan de Zumarragaren eskultura erasotua izan da eta margoz beteta ikusi dugu.

Gazteen kontzentrazioa goizaldeko ordu txikietan luzatzen da, eta egonaldiak gero eta gehiago luzatzen dira, goizeko 6:00ak arte, oihuak eginez eta musika altuak jarritz.

Zuhatzola parkeko auzoan gertatzen zen bezala, Durangoko alde zaharreko bizilagunek ezin dute lorik egin eta goizean ez dago kaletik ibiltzerik.

Bestalde, egoera hori are kezagarriagoa da pandemiak oraindik irauten duen egungo egoeran, eta, beraz, errespetu handia izan behar dugu ezarritako osasun-neurriak betetzearekin.

Toki erakundeen legearen eskumenen arabera, udalerrien eskumenak dira:

- 2.- Bizikidetza-harremanak antolatzea eta kudeatu espazio publikoan.
- 4.- Udaltzaingoa antolatu eta kudeatu, trafikoa antolatu, bideko segurtasuna, ibilgailuen aparkalekuak eta herritarren segurtasunerako kolaborazioa.
- 5.- Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko toki eta establezimenduetan antolatzen diren jardueren segurtasuna antolatu eta kudeatu.
- 10.- Osasun publikoa sustatu, kudeatu, defendatu eta babestu.
- 31.- Udalerri barruan dauden eta udalaren titulartasunekoak diren bide publikoak (hirikoak eta landa-eremukoak) antolatu, kudeatu, kontserbatu eta mantendu.
- 32.-Udalaren titulartasunekoak diren bideetan, persona, ibilgailu (motordunen nahiz motorgabeen) eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna antolatu, kudeatu, zehatu eta sustatu, eta baita ere pertsonen eta merkatu-gaien garraioarena, zeinetarako posible izango den beharrezkotzat jotzen diren baliabide materialak eta teknikoak eta giza baliabideak finkatzea.

Kontuan hartuta astebururo egoera areagotzen ari dela, ondorioak gero eta kezagarriagoak direla eta Durangoko jaiak ospatzeko ohiko datak hurbiltzen ari direla, eta ondorioz, larriagotzeko arriskua dagoela, EAJk gobernu-taldeari eskatzen dio horrelako ekintzak saihesteko neurriak har ditzala, udalerriko bizikidetza eta herritar guztien osasuna arrisku larrian jartzen baitute:

- **Udaltzaingoaren-presentzia indartzea, jende pilaketa horiek saihesteko.**
- **Ordutegien kontrola.**
- **Garbiketa indartzea.**
- **Neurri bereziak zehaztea San Faustoko EZ-jaietarako.**